



Kontu emate soziala eta partaidetza



Ikerketak ALBOAN

...

11. Lehen Afrika Plana indarrean zegoen bitartean Espainiaren eta Mendebaldeko Afrikaren artean izandako migrazio-politikak eta garapenerako lankidetzak-politikak. (2011)
12. Nahi dugun garapena. EAEn dauden etorkinen elkarrekin jasotako ikuskerak. (2011)
13. Peruren deszentralizazioa: Gizarte zibilak parte hartzeko gunea? (2011)
14. La participación: clave del desarrollo. Cuatro experiencias de participación ciudadana. (2011)
15. Norena da natura? Gizarte-ekintzaren eta baliabide naturalen gaineko hiru esperientzia. (2012)
16. Gaitasunen garapena aldaketa-estrategiatzat. Alternatibak bilatzeko esperientzia kolektibo bat. (2015)
17. Kulturarteko hezkuntza berraztertzen: Munduko Hiritarrok proiektuaren gauzatzeko-prozesua. (2017)

Kontu emate soziala eta partaidetza



Arigitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio, 2 - 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Monseñor Estenaga, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

www.alboan.org
alboan@alboan.org

Egileak: Ander Audikana, Xabier Riezu, Javier Arellano, Ayala Maqueda

Data 2018

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

ISBN: 978-84-949341-0-0

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.



Aurkibidea

Sarrera	5
1. Zergatik da garrantzitsua demokraziarako kontu ematea?	6
2. Zer ekartzen du kontu emate sozialak eta nola erlazionatzen da partaidetzarekin?	7
3. Kontuak emateko kalitate desberdinak al daude? Kontu-emate sozial hobeak eta okerragoak al daude? Nola bereizten ditugu?	13
4. Kontuak emateko esperientzia motak: ahalmenak eta mugak	17
4.1. Kontu-emate sozialeko prozesuak	17
4.2. Kontu-emate sozialeko ekimenen ondorioa	19
5. Ondorioak: zer egin dezakegu gizarte zibiletik kontuak emateko prozesuak hobetzeko?	25
Bibliografia	27

Sarrera

Pertsona gehienentzat garrantzitsua da besteek kontuan hartzea eta eragiten gaituzten erabakiak daudenean, azalpenak ematea. Arlo pertsonalean, erabakia hartzen duten pertsonentzat garrantzitsuak garen seinalea da. Horrek, ongi sentiarazten gaitu. Arlo politikoan, demokrazia arlo horretan oinarritzen da. Ordezkatzen gaituzten pertsonak beren jarduerak azaltzea behar dugu, hautatzen ditugunean sortzen dugun konfiantza-lotura berritzeko.

Azken urteetan, erakundeek herritarrei kontuak emateko mekanismoak sortu dituzte. Hala ere, informazioa eta azalpenak “eskaintzen” dituzten erakundeen ekimenez gain, gizarte zibilak kontu-ematea “eskatzeko” bide egokiak izan behar dituela eta aktiboa izan behar duela ikusi dugu.

“Kontu-emate sozial” terminoa *-social accountability* da jatorriz mundu anglosaxoian erabiltzen den terminoa prozesu horrekin lotuta dago, eta kontzeptu politiko nahiz mekanismo multzo bati egiten dio erreferentzia. Kontzeptualki, kontu-emate soziala, gizarte zibil antolatuak erakunde publikoak kontrolatzeko eta haiengan eragiteko duen gaitasuna da, haien barruan agintari politikoen eta funtzionarioen jarduera eta korporazio pribatuak (Bovens, Goodin, & Schillemans, 2014; Peruzzotti & Smulovitz, 2006; Smulovitz & Peruzzotti, 2000) barne hartuz. Bestalde, ikuspegi deskribatzaile batetik, kontu-emate sozialak azken urtean ugaltu diren zenbait mekanismo barne hartzen ditu, gizarte zibilaren gaitasun horiek sustatzeko eta bideratzeko. Azken batean, erakunde publikoen jarduera eta erantzuna hobetzea eta korporazioak kontrolatzea da helburua: politika publikoak gainbegiratzeko eta jarraitzeko herritarren ekimenak, politikak zehazteko eta aurrekontuak esleitzeko partaidetza-prozesuak, eta iritzi publikoa mugiarazteko kanpainak (Fox, 2015).

Dokumentu honetan, kontu-emate sozialaren kontzeptura hurbilduko gara, azkar baina zorrozki, eta partaidetza-prozesuekin duen harremana, bere ahalmen demokratizatzailea hedatzeko sustatu behar duten printzipio etikoak, eta egon diren kontu-emate batzuen adibideak emango ditugu, haien ahalmenak eta mugak nabarmenduz.

1. ZERGATIK DA GARRANTZITSUA DEMOKRAZIARAKO KONTU EMATEA?

Azken urteetan kontu-emate soziala gero eta garrantzitsuagoa izaten ari da, nolabait batera garatu diren bi prozesuk bat egin dutelako: (i) konfiantza krisiari erantzuna bilatzea ordezkariak demokratikoko sistemetan, eta (ii) herritarren partaidetzaren sustapena. Atal honetan, demokrazia adierazgarrian gertatutako konfiantza krisia eta testuinguru horretan kontu-emate sozialak duen garrantzia azalduko ditugu. Hurrengo atalean, biak partaidetza-prozesuekin lotuko ditugu.

Demokraziaren kalitatearen inguruko adierazleek eta askatasunek, oro har, okerrera egin dute azken hamarkadan. Okerragotze horrek kontinente guztietako herrialdeetan eragin du, historikoki finkatuta dauden Europako demokraziak barne hartuz. Okerragotzea etengabea eta egonkorra izan da hamarkada osoan zehar ((The Economist Intelligence Unit, 2016; The Freedom House, 2016). Bestalde, demokraziaren kalitatearen inguruko ranking horietan puntuazio altuak lortzen dituzten demokrazietan ere, erakunde publiko nagusien legitimitate galera kezkarria antzematen da; baita herritarren gaitzuste ere haienganako. Demokrazia ordezkagarriaren krisi hori berria ez bada ere, okerragotu da. Esaterako, 2016ko Eurobarometroaren arabera, europarren % 27- % 28k bakarrik du konfiantza bere herrialdeko gobernuan eta parlamentuan. Espainiaren kasuan, % 14- % 15ek bakarrik (2016ko Eurobarometroa). Demokrazia zaintzeko, nolabaiteko mesfidantza maila bat funtsezkoa den arren, herritarren kontrolaren bidez, mesfidantza maila handiak arazotsuak dira.

Konfiantza baxu horren hainbat arrazoi eta ondorio daude. Lehenengoan artean hauek aipatu dira: (i) ordezkari politikoaren ustelkeria, (ii) gero eta handiagoa den gizarte-talde handien desberdintasuna eta prekarizazioa, (iii) erakunde demokratikoen gero eta mendekotasun handiagoa izatea merkatu orokorren boterearekiko, (iiii) erakunde demokratiko garaikideen konplexutasuna, hainbat maila eta eragile dituzten gobernantza-eredu daudelako eta (v) kudeaketa publikoaren teknifikazioa, eguneroko bizitzako alderdi zabalaren inguruko erabakia adituen esku utzi dituelako.

Bestalde, erakunde politikoenganako mesfidantzak zenbait ondorio negatibo ditu: partaidetza politikoaren pizgarria kentzen da, erakundearen boterea eta arauen betetzea hondatzen da, berrikuntza politikoak nahiz erakundearen berrikuntzak zailtzen dira, pertsonen eta gizarte-taldeen arteko konfiantza urratzen da, intolerantzia sustatzen da eta talde txikien interes eta eskubideen defentsa zailtzen da (Rothstein & Uslaner, 2005). testuinguru horretan, gizarteko


zenbait sektore erabakien esparrutik baztertuta eta erkidego politikotik kanpo geratzen dira zenbait alderdi garrantzitsutan, hala nola baliabideen banaketan, nortasunen aintzatespenean edo interesen ordezkartzean. Dinamika horiek populismoa, xenofobia eta ultranazionalismo protekzionista sustatzen dituzte, esaterako, immigrazioaren aurkako politikak ezartzen dituenak. Arrazoibide horiek alderdi politiko demokratikoak kutsatzen ari dira, izan ere, erdi-mailako klaseko taldearen aldatuari erantzuten diote, eta traizionatuta sentitzen dira: alde batetik, erosteko ahalmen handieneko sektore politiko eta ekonomikoen aldetik, insolidarioak eta agintzaile agertzen direlako; bestetik, gizarte-politikak eta -zerbitzuak beren gain hartzen dituzten sektore ahulen eskutik (Rosanvallon, 2012). Testuinguru politiko horrek, demokraziaren kalitatea galtzea eta zenbait gizarte-talderen aukera egitea ekartzen du.

Azken bi hamarkadetan, gero eta handiagoa den gaitzuste eta sistema demokratikoen legitimitate galera horri erantzun diote, maila desberdinetan. Ustelkeriaren aurkako neurriak biderkatu dira, legeak eta gardentasun mekanismoak sartu dira, eta partaidetza eta deliberazio eremuak ugartu dira, ordezkartze demokratikoaren kalitatea hobetzeko. Hala ere, neurri horiek ez dute gelditu erakunde demokratikoen ospe galera. Azterketa akademikoek gardentasun, partaidetza edo deliberazio mekanismo formalak egotea, berez, erakunde funtzionamenduen aldaketa esanguratsuak sortzeko ez direla nahikoa nabarmendu dute.

2. ZER EKARTZEN DU KONTU EMATE SOZIALAK ETA NOLA ERLAZIONATZEN DA PARTAIDETZAREKIN?

Testuinguru honetan, kontu-ematea kontzeptu nagusi agertu da, partaidetza eta ordezkartze demokratikoko prozesuak berriro aztertzeko. Kontzeptua ez da berria, baina bere erabilera gobernuen ekintzara aplikatuta duela 40 urte bakarrik orokortu zen. Hortik aurrera, esparru publikoan kontuak ematearen gaia gai izarretako bat bihurtu da kudeaketa publikoaren berrikuntza-prozesuetan (Bovens, et al., 2014). Kontuak ematearen kontzeptuaren inguruko hainbat hurbilketa badaude ere, haietan gehienetan dagoen gune nagusi identifikatu daiteke. Bovensek adierazten duenaren arabera (2007), *“kontu-ematea eragile baten eta foro baten arteko harremana da. Hor, eragileak bere jokabidea azaldu eta justifikatu behar du, eta foroak hainbat arazo sor ditzake eta epaitu, eta eragileak ondorio horiei aurre egin behar die”* (450. or.) (ikusi 1. irudia). Definizio

horretan, eragilea pertsona edo erakunde bat izan daiteke (esaterako, erakunde publiko bat), eta kontuak ematen diren foroa ere pertsona bat izan daiteke, hala nola nagusi hierarkiko bat edo kazetari bat, erakunde bat, esaterako parlamentua, justizia-gorte bat edo gizarte-elkartea.



Iturria: Bovens, 2007

Gutxieneko definizio horrek bi ezaugarri nagusi nabarmentzen ditu. Lehendabizi, kontu-ematea funtsean erlazionala da. Kontuak ematen dituzten eragileen eta kontuak emateko gaitasuna duten eragileen arteko elkarrekintza kontuan hartzen da. Haien artean botere-harremanak sortzen dira. Harreman hori puntuala izan daiteke, edo denbora luza eta errepika daiteke. Kontuak emateko prozesuaren emaitzak harreman hori ezartzen den moduaren arabera izango dira, eta zenbait eragilek dute. Izan ere, kontuak emateko dinamikak prozesu horietan parte hartzen duten eragileak alda ditzakete. Banakako edo taldekako biografiek eta mota horretako dinamikaren aurretiko esperientziak eragile bakoitzaren aukeretan eragiten dute. Hasierako ezarpen horrek eragin nabaria izango du kontuak emateko dinamikak garatuko diren moduan eta haien eraginetan.

Bigarrenik, kontu-emateak “justifikazioaren” ezaugarriak mugatzen dituzten estandarrak eta tresnak behar dituzte ez-betetzeak modu egokian zigortzeko. Kontuak emateko mekanismoak sektoreen arabera aldatzen dira. Kontuak emateko mekanismoek hauteskunde-prozesuak, hierarkia egiturak, kontrol eta auditoretza mekanismoak, produktibitate neurriak, gauzatzeko txostenak, erregulatuak independenteak, gardentasun mekanismoak edo ikerketa-kazetaritza barne hartzen dituzte.

O’Donnellen ohiko sailkapenaren arabera (1998), kontu-emate politikoaren barruan bi bereizten dira: horizontala eta bertikala. Kontu-emate horizontala erakunde-sistemaren beraren instantzien artean gertatzen da. Agentzia publikoen artean egiten den elkarrekiko kontrola da eta oinarrizko erakunde diseinuaren arabera da. Bertikala gertatzen da herritarren artean zuzenean edo bere interesak adierazteko mekanismoen bidez ematen direnean kontuak. Haren barruan, hauteskunde eta gizarte kontu-emateak bereizten dira. Hauteskunde-kontu ematea herritarrek beren botoaren bidez kontrolatzeko eta zehatzeko duten gaitasunean oinarritzen da. Gizarte arloko kontu-ematea kontu-emate “biguna” da, eta gizarte-taldeek mugiarazteko, salatzeo, proposamenak egiteko eta bere zerbitzura kudeatutako mekanismoak eraginkortasunez erabiltzeko gaitasunean oinarritzen da, hala nola ikuskatze agentziak, auzitegien aurreko salaketak edo partaidetza eta hitzartze eremuak.


1. taula. Arlo politikoko kontu-emate motak, eragileak eta mekanismoak				
		Nork kontrolatzen du?	Kontrolatzeko mekanismoak	
Kontu emate motak	Horizontala	Botere betearazlea	<ul style="list-style-type: none"> • Kargu politikoak hautatzea eta kargugabetzea • Erregulazioak • Administrazio-ikuskaritza • Kargugabetzea • Ikerketa-batzordeak 	
		Botere legegilea	<ul style="list-style-type: none"> • Auzitegika ikuskatzea (herrialdearen arabera) • Ikerketa • Ezartzeko gaitasuna 	
		Botere judiziala Ikuskatze-agentziak		
	Bertikala	Hauteskundera	Parlamentuko ordezkariek dituzten alderdi politikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Ordezkaritza politikoa • Hautagaiek aukeratzea • Politika berrien ekimenak • Botoa
			Herritarrak	
		Soziala	Gizarte-erakundeak, GKEak eta gizarte-mugimenduak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-mobilizazioa eta salaketa publikoak • Gai garrantzitsuak zehaztea • Gainbegiratze-agentziak erabiltzea • Auzitegien aurreko salaketak / aktibismo judiziala. • Partaidetza bidezko mekanismoak, politikak eta kontrola ezartzeko.
Komunikabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerketa eta salaketa publikoa • Gai garrantzitsuak zehaztea 			

Iturria: Smulovitz and Peruzzotti 2006.

Kontu-emate soziala garrantzitsua da, hauteskunde-mekanismoen urritasunak arintzen saiatzen delako. Herritarren botoaren boterea oso mugatua da kargu

politikoeak eta erakundeek kontuak eman ditzaten sustatzeko. Botoak herritarrek epe luzean dituzten lehentasunak eransten ditu, hala ere, ez du modu egokian adierazten interesen heterogeneotasuna, ezta gutxiengoaren ikuspegiak eta pertsona batek iritzia izan ditzakeen gaien aukera ere. Horrez gain, azterketa empirikoen arabera, herritarren botoak harreman txikiagoa du iraganeko hauteskunde-programen betetzearekin, hautagaien etorkizuneko portaerarekiko aurreikuspenekin baino. Bestelako arrazoien artean, boto-emaileen lehentasunak ez daude gobernuek, behin hautatuta, eragiteko duten gaitasunetik kanpo. Horrela, bere hauteskunde-konpromisoak betetzen ez dituen gobernu batek ezin du jasan hauteskunde-zigorrik hautesleek ez-betetze horiek positibotzat jotzen badituzte.

Ikuspegi horretatik, kontu-emate sozialak erakunde publikoen eta herritarren eta erakunde zibilen artean ezartzen den elkarrekintza hobetzen lagunduko luke. Mota horretako prozesuen helburua elkarrekintza-kanal arinagoak ezartzea da, bi esku-hartze esparru horien artean. Horrela, gizarte-eskaerak zuzenago sartuko dira erakunde publikoen agendan, eta horrez gain, esku-hartze publikoen kontrol eremuak sortzen da txertatze prozesuan. Hauteskunde-mekanismoen aurrean, kontu-emate sozialak arazo eta politika publikoei buruzko deliberazio-prozesuak sustatzen eta sakontzen lagunduko luke. Kontu-emate sozialeko mekanismoek, gainera, elkarrizketa jarraituagoa mantentzeko aukera ematen dute denboran zehar, hauteskunde-prozesu puntualak harago.




Azken urteetan gobernuek herritarrei emandako erantzuna hobetzeko zenbait ekimen ugaritu dira (ikusi 2. taula): formalizazio maila desberdineko kontsultak, zundaketak, partaidetza eta hitzarmen eremuak, gizarte-auditoretzak, gardentasun mekanismoak, lege-ekimenak sustatzeko edo gelditzeko kanpainak eta gobernu irekia. Ikuspegi horretatik, kontu-emate sozialak erakunde publikoen eta herritarren eta gizarte zibileko erakundeen artean ezartzen den elkarrekintza hobetzen lagunduko luke. Mota horretako prozesuen helburua elkarrekintza-kanalak ezartzea da. Horrela, gizarte-eskaerak zuzenago sartuko dira erakunde publikoen agendan, eta horrez gain, esku-hartze publikoen kontrol eremuak sortzen da. Hauteskunde-mekanismoen aurrean, kontu-emate sozialak arazo eta politika publikoei buruzko deliberazio-prozesuak sustatzen eta sakontzen lagunduko luke. Kontu-emate sozialeko mekanismoek, gainera, elkarrizketa jarraituagoa mantentzeko aukera ematen dute denboran zehar, hauteskunde-prozesu puntualak harago. Azken batean, ekimen horien eraginkortasuna, txertatzeak, herritarrek gobernuak azalpenak ematera eta azalpenak ez badira egokiak zehatzera behartzeko duten gaitasuna indartzen duen mailaren arabera da. Zentzu horretan, esan dezakegu ekimen horiek guztien asmoa kontuak emateko dinamikak hobetzea dela.

2. taula. Kontu-emate sozialeko mekanismoak			
Mobilizazioa	Partaidetza	Hezkuntza	Kontrola
a) Adierazpen publikoak	a) Politikak egiten parte hartzea	a) Legezko eskubideei eta eskura dauden zerbitzuei buruzko hezkuntza	a) Batzorde eta audientzietan parte hartzea
b) Protestak	b) Aurrekontu parte-hartzaileak		b) Herritarren kontsultarako Batzordeak eta gainbegiratze-batzordeak
c) Defentsa eta sustapen kanpainak	c) Gastu publikoa kontrolatzea		
d) Ikerketa-kazetaritza	d) Zerbitzuen hornitzaeraren jarraitzea eta ebaluatzea		
e) Interes publikoko epaiak			

Kontu-ematearen eta partaidetza-prozesuen arteko harremana zuzena da, baina konplexua (ikusi 3. taula). Gizarte zibilaren partaidetza ezinbestekoa da kontu-emate prozesuak sustatzeko, baina partaidetzak bakarrik ez du beti ekartzen kontu-ematea egotea. Neurri batean, kontuan har dezakezu kontu-ematea partaidetza-prozesu zorrotzagoa dela, eta erakunde publikoen eta gizarte zibilaren

artean berdintasun-harreman bat ezartzeko aukera ematen duela. Eragilearen (erakunde publikoa) eta foroaren (gizarte zibila) arteko harremanaren asmoa partaidetza-prozesuen bezain hierarkikoa ez izatea da, hor, herritarrek kontrolatzeko duten gaitasuna mugatuagoa delako. Izan ere, partaidetza-prozesuak izatera desberdinekoak izan daitezke: herritarrek erakundeak kontrolatzen laguntzen duten prozesuetatik, erakundeak herritarrek manipulatzeko saiatzen egoeretaraino. Botere erakundearen eta herritarren artean berdintasunez banatzeko aukera ematen duen kontu-emateak agenda politikoa batera zehaztea ekarriko luke. Horren aldean, informazio edo gardentasun kanpainak (eta hala badagokio, desinformazio kanpainak), partaidetza mala eta mota mugatuak eskaintzen dituzte, baita kaltegarriak ere.

3. taula. Kontuak emateko modalitateak eta partaidetza-mailak		
Botere banaketa	Kontu-emate sozialeko modalitateak	Partaidetza-mailak
Simetrikoa  Asimetrikoa	Agenda politikoaren definizioa Eragina agenda politikoan Eragina politikak diseinatzeko parametroetan Kontrola eta monitoring Eztabaida Informazioa jasotzea Pertsuasioa Desinformazioa	Herritarren kontrola Boterea eskuordetzea Garapenerako lankidetzak Moderazioa Kontsulta Informazioa Terapia Manipulazioa

3. **KONTUAK EMATEKO KALITATE DESBERDINAK AL DAUDE?** **KONTU-EMATE SOZIAL HOBEAK ETA OKERRAGOAK AL DAUDE?** **NOLA BEREIZTEN DITUGU?**

Askotan pentsatzen dugu gizarte zibilaren ekarpen guztiak positiboak direla, baina kontu-emate soziala onuragarria da beti? Galdera horri irizpide etikoen bidez eta azterketa enpiriko bat egin ondoren bakarrik erantzun ahal zaio. Irizpide

etikoak ezinbestekoak dira testuinguru bakoitzean “positiboa” edo “onuragarria” izateak zer esan nahi duen erabakitzeke. Edozein giza jarduerak ez du eragin bera taldeetan; berehalako edo geroagoko eraginak zan daitezke, eta alboko eraginak ere izan daitezke. Ongi pentsatu behar ditugu mota horretako kontuak, kontu-emate sozialaren benetako ekarpena modu egokian aztertzeke. Bestalde, kontu-emate sozialaren kalitatea lantzea gai enpirikoa ere bada. Ezin dira aztertu haren ondorioak teoriatik bakarrik abiatuz. Elkarrekintza horiek praktikan nola ibiltzen diren aztertu behar dugu, emaitzak jakiteko, eta beraz, pertsonengan aldaketa positiboak sortzeko zer gaitasun duten jakiteko.

Ikuspegi etikoa garrantzitsua bada ere, kontu-emate sozialaren inguruko azterlanek gutxitan lantzen dute esplizituki. Esaterako, normala da positibotzat jotzea deliberazio-prozesuetan baztertuta dauden pertsonak eta taldeek parte hartzea. Irizpide hori onartzean, eraginkortasuneko irizpide teknikoek harago joaten ari gara etikaren esparruan sartzeko: garrantzitsua da baztertutako taldeen ikuspegia kontuan hartzea. Askotan, horrek abantaila praktikoak ditu, prozesuek legitimitate eta egokitzapen prozesuan hobetzen dutelako. Hala ere, hemen garrantzitsuena da adieraztea talde horien partaidetzak arazo praktikoak sortuko balitu ere, ikuspegi etiko batetik, ezinbestekoa dela parte hartzea. Askotan, irizpide etiko horiek nahi gabe onartzen dira, esplizituak egin gabe, eta beraz, kontu-emate sozialaren diseinuan eginkizun garrantzitsuago bat izan gabe.

Muga hori gainditzeko, politikaren dimentsio etikoez kezkatuta zeuden egileen ekarpen batzuk aurkeztuko ditugu. Gure ustez, Iris Marion Youngen lanean (1989, 2000, 2001, 2011), kezka etikoa jasotzen duten zenbait kontzeptu ditugu, bereziki erabilgarriak direnak kontu-emate sozialeko prozesuak ulertzeko modua aberas- teko: *herritartasuna, justizia, erantzukizuna, ordezkagarritasuna eta deliberazioa*.

Lehendabizi, kontuak ematearen ideia hertsiki lotuta dago *herritartasunaren* nozioarekin. Gizarte pluralistetan, pertsonak interes, itxaropen eta bizimodu desberdinak dituzte, hala erre, denok herritarrak garela aldarrikatzen dugu. Baieztapen horrek zentzu bikoitza du. Alde batetik, lege-ikuspegi batetik, herritarrek eskubide eta betebeharrak dituztela adierazten du. Bestetik, legezkotasunaz harago, herritarren artean desberdintasun bidegabeak daudela onartzen da, eta horiek gainditu egin behar dira, herritartasuna guztiz benetakoa izan dadin.

Bigarrenez, kontuak emateko erlazioak erakunde publikoen eta gizarte zibileko taldeen artean, *egiturazko bidegabetasun* testuinguru batean ulertu behar dira.

Ikuspegi liberal batetik, kontu-emate sozialaren helburua erakunde publikoek herritarren lehentasunei erantzuteko gaitasuna hobetzea da, edozein dela lehentasun horien edukia. Hala ere, kontu-emate soziala baliabideak eta aintzatespen soziala herritarren artean modu desberdinean banatzen diren gizarte batean egiten da. Horrez gain, kasu gehienetan, desberdintasun horiek ez dira gertatzen erabaki pertsonalengatik; gizarte-talde bereziak daudela erakusten duten egiturazko faktoreen emaitzak dira, eta aldi berean, pertsona bakoitzaren posizio soziala zehazten du (Young, 1989; Young, 2000). Gizarte-talde horiek, askotan, nortasun-ezaugarriekin lotuta daude, hala nola generoa, arraza, jatorrizko herrialdea. Testuinguru honetan, kontu-emate sozialak gizarte-talde desberdinen arteko botere-asimetria orekatzeko harremanak sustatu behar ditu, demokratikoki elkarreragin dezaketen subjektu politikoak sor daitezen sustatzeko modu gisa.

Hirugarren puntua aurreko puntuaren ondorioa da, eta parte-hartzaileek kontu-emate sozialeko prozesuetan duten *erantzukizunari* buruzkoa da. Egiturazko bidegabekeria bat egoteak agintari publikoek nahiz gizarte zibileko eragileek egoeraren erantzukizuna hartzea eta aldatzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzea eskatzen du (Young, 2013). Beraz, kontuak emateko harremanek lan horretan lagundu behar dute. Horren aldean, interes bereziak babestuz bakarrik gidatutako harremanek justiziaren ikuspegitik nahikoak ez diren kontu-emate prozesuetara eramaten dute.

Laugarren ekarpen etikoa herritarrek kontu-emate sozialeko prozesuetan duten ordezkagarritasunari buruzkoa da. Prozesu horien helburua kontuak emateko ohiko moduak hobetzea da (hauteskundeak, gainbegiratze- eta kontrol-organoak, edo botere judiziala), herritarren eta gizarte zibileko taldeen zuzeneko partaidetzaren bidez. Kontuak emateko ordezeko modu hori zenbait ordezkartza-moduren bidez bideratzen jarraitzen da. Tokiko kasuak daudela badakigun arren, non programa edota politika batek eragindako pertsona guztiak arduradun politiko edo zerbitzari publikoekin elkarrekintzan zuzenean lotuta dauden, kontu-emate sozialeko prozesu gehienak ez dira mota honetakoak. Oro har, administrazio publikoen politikek edo erabakiek zuzenean elkarri eragiten diotenak baino pertsona gehiagori eragiten diete. Por ejemplo, un consejo asesor sobre educación a nivel nacional puede abarcar, entre otros grupos, a sindicatos de docentes, asociaciones de padres y madres, y estudiantes. Los participantes en el consejo representan los intereses de grupos más amplios. En otros casos, como en los procesos de presupuestos participativos, los ciudadanos frecuentemente intervienen directamente sin tener un mandato explícito para

representar los intereses de los demás. A pesar de eso, generalmente se les considera representantes de la “sociedad civil”. El caso más extremo en cuanto a estos procesos de representación es cuando grupos de la sociedad civil y activistas interactúan con el estado para defender los intereses de grupos que están completamente ausentes en esa interacción. Por ejemplo, cuando defienden los intereses de personas marginadas, ciudadanos de otros países o las generaciones futuras.

Esaterako, maila nazionaleko hezkuntzaren gaineko aholku-batzorde batek, besteak beste irakasleen sindikatuak, gurasoen elkarteak eta ikasleak barne har ditzake. Kontseiluko parte-hartzaileak talde handiagoen interesen ordezkariak dira. Beste kasu batzuetan, hala nola partaidetza-aurrekontuen prozesuetan, herritarrek maiz zuzenean esku hartzen dute, besteen interesak ordezkatzeko agindu espliziturik izan gabe. Hala eta guztiz ere, oro har, “gizarte zibilaren” ordezkariak hartzen dira. Ordezkatze prozesu horien kasurik muturrenekoa da gizarte zibileko taldeek eta aktibistek estatuarekin elkarri eragiten diotenean, elkarrekintza horretan parte hartzen ez duten taldeen interesak defendatzeko. Esaterako, baztertuta dauden pertsonen interesak defendatzen dituztenean, beste herrialde batzuetatik edo etorkizuneko belaunaldietako herritarrak.

Herritarren eta estatuaren arteko zuzeneko elkarrekintza-kasu horietan guztietan, ordezkariak garrantzitsua izaten jarraitzen du, eta ez du eragiten agintari publikoengan bakarrik, beren karguarengatik gizartea ordezkatu behar dutenak; gizarte zibilarengan ere eragiten du. Aurreko gogoetek bi ondorio nagusi dituzte. Lehendabizi, benetako erantzukizun-harremanek gaian interesa duten gizarte-talde desberdinen partaidetza eskatzen dute, ezin duelako inork denen izenean hitz egin. Taldearen ordezkariak baliabiderik onena da erabakiak hartu behar diren prozesu demokratikoetan bidezko emaitzak sustatzeko (Young, 1989: 263). Bigarrenik, gizarte zibileko parte-hartzaileek pertsona-talde zabalagoa ordezkatzearen ondorioz, kontu-emate soziala kontuak emateko sare zabalago batean kokatzen da, non parte-hartzaileak, ordezkariak dituzten gizarte-taldeekin lotuta daude, baimen eta erantzukizun harremanen bidez (Young, 2000: 128). Beraz, kontu-emate soziala ez da harreman bat bakarrik, elkarrekin lotuta dauden harreman-sare bat da, sustatu behar direnak, eta ulertu nahi badira, bere konplexutasunean aztertu behar dira.

Azkenik, *deliberazioak* zeregingarrantzitsuadukontu-emate sozialeko harremanetan aurrera egiteko, inklusio politikoa sustatuz. Justizia soziala berdintasun politikoa

lortzeko ezinbestekoa bada ere, deliberazioa eta bazterkeriaren kritika esplizitua inklusio politikoa sustatzeko modu errealista bat dira (Young, 2000:36). Kontuak emateko harremanak indartzeko deliberazioaren ahalmena, elkartu behar diren lau puntu aztertuz ebalua daiteke: (i) eremu publikoa, (ii) erabaki kolektiboak, (iii) meta deliberazioa eta (iv) argudio motak. Lehendabizi, deliberazio esanguratsuak komunikazio libre eta zabala posiblea den eremuak eskatzen ditu. Bigarrenez, deliberazio eraginkorra erabaki kolektiboak har daitezkeen foroetan gertatzen da. Hirugarrenez, deliberazioak, deliberazioa antolatzen den moduari buruzko eztabaida barne hartu beharko luke. Meta-deliberazio hori ezinbestekoa da elkarrekintzaren deliberazio-izaera bermatzeko. Laugarrenez, argudioen kalitate formala eta hizkuntza ez gatazkatsuen erabilera ezin dira gertatu askotan gizartelalde baztertuek erabiltzen dituzten partaidetza-modu ez hain hezien gainean.

Hurrengo atalean, erantzukizunaren harreman izaeraren eta etikaren gaineko aurreko gogoetak kontuan hartuko ditu, kontu-emate soziala aztertzeko esparru analitikoa proposatzeko.

4. KONTUAK EMATEKO ESPERIENTZIA MOTAK: AHALMENAK ETA MUGAK

Bigarren atalean ikusi dugun moduan, zenbait mekanismo daude, eta horien bidez, kontu-emate sozialeko prozesuak sor daitezke. Mekanismo horiek, kontu-emate sozialeko prozesuak eraikitzeke balio duten oinarritzko blokeak dira. Hala ere, mekanismo horiek ez dituzte beti emaitzak sortzen, beste modu batera erabil daitezkeelako, eragile desberdinek eta helburu desberdinetarako. Atal honetan, mekanismoak erabiltzeko modu horietako batzuk aurkeztuko ditugu, lor ditzaketan emaitzak laburki azalduz.

4.1. KONTU-EMATE SOZIALEKO PROZESUAK

Kontu-emate sozialeko ekimen mota desberdinak daude. Sailkatzeko modu bat bi ezaugarriren arabera egitea da: bultzatzen dituen eragilea eta bere denbora-izaera. Lehen ezaugarriari esker, kontuak eman behar dituzten erakunde publikoak bultzatuz sortzen diren ekimenak eta gizarte zibileko erakundeek bultzatutakoak bereizten dira.

- a) Erakunde publikoek herritarrekin elkarrekintza-mekanismoak abian jartzen dituztenean, hainbat helburu izan ditzakete: (i) erantzuteko beharrak hobeto

ezagutzea, (ii) erabakiak hartzeko prozesuak hobetzea, (iii) politiketan hobekuntzak egitea, eta (iv) gizartearen aurrean haien kontu ematea. Izan ere, azkenaldian, diskurtso-mailan gutxienez, erabateko paradigma aldaketa gertatu da administrazio publikoan -"gobernu irekia" delakoa-, agintari publikoek gizartearekin askoz ere elkarrekintza handiagoa eskatzen duena. Paradigma horren ondorioz, munduko zenbait lekutan, gobernuak kontuak eman dituen ekimenak ugaritu egin dira.

- b) Bestalde, kontuak emateko ekimenak, gizarte antolatutik sortzen diren ekimenen ondorioa ere izan daitezke. Zenbait gizarte-eragilek botereen kontrol-lana egitea eta politika publikoetan eragitea bilatzen dute. Hainbat modutara egiten dute, hala nola eztabaida publikoan parte hartuz, gizarte-mobilizazioaren bidez edo erakundeekin elkartzeko eremuak sortuz. Ekimen horiek deliberazio-demokraziako paradigma batekin bat datoz, sistema demokratikoen legitimitatea indartzeko modu gisa proposatzen dena.

Kontu-emate sozialeko ekimenen tipologia bat eraiki dezakegun bigarren ezaugarria da erakundeen eta eragile sozialen artean egiten den elkarrekintzaren iraupena, kualitatiboki desberdin egiten dituelako.

- a) Kontu-emate sozialeko zenbait ekimenek botere publikoen ekintzaren alderdi puntual eta mugatuei jartzen diete arreta. Gai bakar batean eta denbora-testuinguru jakin batean bilduta dauden kontu-emateak dira.
- b) Beste ekimen batzuk, berriz, egiturazko elementuetan eragiten dute, denboran jarraituz. Horrez gain, kontuak emateko dinamikak sor ditzakete, denbora-mugarik gabe.

Bi ezaugarri horien arabera, kontu-emate sozialeko ekimenak lau moten arabera sailka daitezke: ekimen sozialeko kasu iraunkorrak, ekimen sozialeko kasu diskretuak, erakunde-ekimeneko kasu iraunkorrak eta erakunde-ekimeneko kasu diskretuak. Laugarren taulan, sortzen diren lau kategoria bakoitzaren ezaugarri nagusiak adieraziko ditugu.

Lehen kategoriako adibideak (A) - ekimen sozial iraunkorrekoak- izango lirateke Estatuko aurrekontu orokorren % 0,7 garapenerako lankidetzarako erabiltzearen aldeko kanpaina, Oinarrizko Errenta Unibertsalaren aldekoa edo gizarte- eta erlijio-taldeek familiaren alde edo abortuaren aurka egiten dituzten jarduerak.

Kontu-emate sozial diskretuko adibideak (B) izango lirateke murrizketen aurkako gizarte-mobilizazioak, Stop Etxegabetzeak gisako kanpainak edo pentsioen igoeraren aldekoa, edo Abegia salba dezagun kanpaina, non 2012an gizarte-eragile ugarik parte hartu zuten.

Erakunde-ekimen iraunkorak (C) dira, esaterako, gardentasun eta gobernu irekiko atariak, zenbait administrazioak abian jarri dituztenak -esaterako, Irekia Euskadin-; sektoreko partaidetza-kontseiluak, partaidetza-aurrekontuak eta abar.

Azkenik, erakundeko kontu-emate sozial diskretuaren (D) adibideak izango lirateke informazio edo kontsulta kanpaina puntualak eta erreferendumak.

4. taula. Kontu-emate sozialeko ekimen motak			
		Ekimenaren jatorria	
		Soziala	Erakundekoa
Egonkortasuna elkarrekintza	Iraunkorra	A Politika orokor jakinak sustatzeko iraupen luzeko kanpainak; gizarte-erakundeek politika publikoetan eragiteko gaitasuna lortzeko eragin-esparruan egindako estrategiak.	C Gizartearekin elkarri eragiteko aukera ematen duten eremu eta kanalak sortzea, gobernu herritarrengana hurbiltzeko eta politika publikoak hobetzeko, edo kontuak ematen diren arloan egindako egiturazko edo partaidetzako estrategiak.
	Diskretua	B Mobilizazioak eta gizarte-eragileen eta erakundeen eragina berriazko helburuak lortzeko.	D Informazio edo komunikazio kanpainak, eta kontsulta publikoak edo sektorekoak gai zehatzen inguruan.

4.2. KONTU-EMATE SOZIALEKO EKIMENEN ONDORIOA

Kontuak emateko ekimen mota hauek guztiak osagarriak dira. Lau motek kontu-emate sozial eraginkorra bermatzen laguntzen dute. Baina denek ez dituzte ondorio berak. Kontu-emate sozialeko ekimenen hiru eragin mota berezi behar dira: eragileei buruz, deliberazio-baldintzei buruz eta politika publikoei buruz.

Batetik, kontu-emate sozialaren asmoa da agintari publikoen eta gizarte zibilaren artean elkarrekintza hobetzea, eta botere-banaketa asimetrikoagoa sortzea. Zehazkiago, kontu-emate sozialak prozesuan parte hartzen duten eragileak berresten edo ahalduntzen lagundu beharko luke. Botere-erlazio parekatuagoa nahi bada, eragile desberdinak berretsi behar dira, bereziki herritarrak eta gizarte zibil antolatua.

Bigarrenik, kontu-emate sozialaren asmoa testuinguru jakin baten kultura demokratikoa hobetzea da. Kontuak emateko dinamikak hertsiki lotuta daude testuinguru politiko eta sozial jakin baten baldintzekin eta eztabaida eta deliberazio kulturekin. Deliberazio baldintzek lankidetzako eta konfiantzazko eztabaida-testuinguruak bidera ditzakete, edo tentsio eta konfiantza ezeko egoerak sortu.

Hirugarrenez, kontu-emate sozialak politika publiko eraginkorrakoak eta inklusiboagoak sortzen lagundu beharko luke. Erabakiak hartzeko eta deliberazio baldintzak hobetzeko prozesuan parte hartzen duten eragileak berresteari esker, erakunde publikoek egindako esku-hartzeak eta politikak hobe litezke. Adierazi nahi dugun gai nagusia da hiru osagai horiek (eragileak, deliberazio-baldintzak eta politika publikoak) zer modutara aldatzen diren denboran zehar kontuak emateko dinamikaren ondorioz:

- Kontu-emate sozialak laguntzen du prozesuan parte hartzen duten eragileak ahalduntzen edo haien berrespen politikoa egiten?
- Kontu-emate sozialak laguntzen al du deliberazio-baldintzak demokratizatzen?
- Kontu-emate sozialak laguntzen al du politika eraginkor eta inklusiboagoak egiten?

Kontu-emate sozialen osagaiak		Helburuak
Eragileak	→	Eragileak ahalduntzea edo berrestea
Deliberazio-baldintzak	→	Kultura demokratikoa hobetzea
Politika publikoak	→	Politika publikoen eraginkortasuna eta inklusioa

Kontuak emateko ekimenekin lotuta dauden eragin horien hiru konbinazio aipatuko ditugu, gure ikuspegia irudikatzen duten zenbait adibide proposatuz:

Kontuak emateko gizarte-ekimenek normalean eragileak indartzen dituzte, eta agenda politikoa handitzen laguntzen dute, baina zailtasunak dituzte, epe laburrean gutxienez, politika publikoak aldatzeko.

2008. urtetik izan dugun krisi ekonomikoak gizarte-irakidura bat eragin du herrialde askotan. Espainian, horren ondorioz, zenbait taldek mobilizazio handiak egin dituzte, murrizketengatik: hezkuntza, osasuna, hipotekak eta preferenteen erosketek kaltetutakoak, ikertzaileak eta abar. Talde horiek gobernuaren politiketan eragiten saiatu dira, gizarte-politiketarako, hezkuntzarako edo osasunerako bideratutako aurrekontu-partidetan murrizketarik ez egiteko, eta beraien eskaeren aldeko politikak gauzatzeko.

Ez dago eztabaidatzerik politika horiek politikak aldatzea eskatzen zuten gizarte zibileko eragileak indartzeko balio dutela. Zenbait kasutan, mobilizazioei esker, zenbait taldek ordura arte ez zuten artikulazio eta solasaldi maila bat lortu dute. Horren adibide garbiak izan ziren pentsiodunek 2018. urtearen hasieran egin zituzten mobilizazioak. Hainbat begiralek esan zuten aurretik ez zela inoiz egon interes partekatuak zituen eragile bat sortzeko eta politika publikoetan eragiteko gai den kontzientzia mailarik. Ez dago zalantzarik ekimen horiek esfortzuak eta errebindikazioak batzeko eta elkartzeko eremuak sortu dituela, eta horri esker, eragindako eragileak indartu egin direla.

Horrez gain, mobilizazioek deliberazioaren baldintzak aldatu dituzte prozesu bikoitz baten bidez. Lehendabizi, agenda politikoaren barruan pentsioen gaia indartuz, gaur egungo pentsiodunen ikuspegitik. Bestalde, garrantzi politikoa eman zaio agintariek erantzun behar duten gizarte-talde handi bati.

Hirugarren urratsa, politika publikoak aldatzeko gaitasunarena, zailena da mota honetako ekimenetan. Esaterako, pentsiodunei dagokienez, Gobernuak ez zuen negoziatu pentsiodunen erakundeekin, edo deialdiak gehiengoak duten sindikatuekin batera egin zuten beste batzuekin. Hala ere, mobilizazioei esker,

aurrekontu orokorren negoziazioan, gobernuak igoera bat egin behar izan zuen, aurreikusita ez zegoena, pentsioen kalkuluan. Hala eta guztiz ere, sustatzaileen errebindikazio gehienak jasotzen ez dituzten aldaketa txikiak dira.

Epe laburrean politika publikoak aldatzeko zailtasun horiek zenbait salbuespen dituzte. Esaterako, 2013an, alarma handia sortu zen immigrazioaren esparruko gizarte-sektoreetan, zigor kodearen erreformak, gobernuak jakinarazi zuenak, agiririk ez zuten etorkinei modu altruistan laguntza ematen zietenak zigortzeko aukera ematen zuelako, ekintza solidarioak eta pertsonak trafiko-sareek egiten dituztenak parekatuz. Arrisku horren aurrean, mobilizazioak eta eragin-lan handia egin zituzten gizarte-erakundeek, "Abegi ona salba dezagun" goiburuarekin". Guztira, 127 mozio onartu ziren eskualdeko udal eta parlamentuetan. Azkenik, legearen behin betiko zirriborroak esplizituki uko egin zion arrazoi humanitarioarekin egindako ekintzen jazarpenari. Kontu-emate sozialaren arrakastaren adibide bat da, gizarte-taldeek ekimenaz egindakoa. Arrakasta-kasutzat ere har genezake Espainian etxegabeteen aurka egindako mobilizazio handia. Etxegabeteen aurkako erakundeek legedi mailan, etxebizitzarako eskubidearen inguruan, edo hipoteka-kredituen inguruan, proposatutako helburu guztiak bete ez badituzte ere, banku-sektorearen autoerregulazio bat gertatu da, eta kasu askotan, epaileek esku hartu dute etxegabetez prozesuak gelditzeko.

Baina, gizarte-taldeengandik sortzen diren kontuak emateko ekimenen politika publikoen emaitza ez da argia. Zuzenean eragindako pertsonen errebindikazioen sektore-interesa oso bestelakoa da ororen ondasunarekiko interesaren aldean, edo beste taldeen interesen edo gobernuen lehentasunen aldean. Edozein dela arrazoa, uzkur agertzen dira gizarteak zuzenean egindako errebindikazioak onartzearen aurrean.

Gobernuak kontuak emateko egindako ekimenek politika publikoak hobeto ditzakete, baina eragilearen eginkizun eta garrantzi erlatiboa itxuraldatzeko arriskua dute.

Gobernuak kontuak emateko egindako ekimenen bidez, ordezkari politikoek informazio hobearrekin har ditzakete erabakiak, edo gizartearen benetako eskaerei erantzuten dietela berma dezakete. Kategoria horretan sartzen dira herritarrei zuzenean egindako kontsultak, erreferendumen edo aholku-batzordeen bidez,

Herritarren Epaimahaien bidez (lan-saioak ausaz bildutako herritarrekin), edo etorkizunerako garrantzitsuak diren eragileekin lantegiak eginez. Atal honetan hauek ere barne hartu behar ditugu: sektoreko mahaiak eta foroak, gizarte partaidetzako kontseiluak, programa eta ekipamenduen kudeaketa eta boluntarioen kanpainak.

Mota horretako ekimenek izaten duten eragozpenik handiena ordezkagarritasun eskasa da. Kontuak emateko mekanismoak daude, esaterako, ikasketa-elkarteetan edo gaikako forumetan, gai zehatzak eztabaidatzeko biltzen direnak. Hor ez dago kezka handirik parte-hartzaileen ordezkagarritasunarekin. Baina beste ekimen batzuetan, hala nola deliberazio-inkestetan, epaimahai eta herritarren paneletan, ordezkagarritasuna erabakigarria da. 2017. urtean, Madrilgo Udalak kontsulta baterako deia egin zuen, Madrilgo bigarren parkerik handienaren izenari buruz erabakitzeko (Felipe VI.). Hor, 2.528 madrildarrek parte hartu zuten, boto eskubidea duten 2,7 milioien % 01ek besterik ez.

Ordezkagarritasun arazo horiek berezi eztabaidagarriak dira elkarten partaidetza-mekanismoetan, non eragile nagusiak gizarte zibileko elkarteak diren. Hemen barne hartzen dira helburu gisa lurraldeko nahiz sektoreko interesak ordezkatzeko izaten ohi duten erakundeen aholku-batzordeak. Hor, politiken diseinuari buruz eztabaidatzen dute, eta erakundeen sektore mahaiak edo elkarrizketa mahaiak kontsulta-mekanismo gisa erabiltzen dira elkarten iritziak jasotzeko. Zenbait partaidetza-foro publikotan, zalantzakoa da erakundeak, interesatzen zaizkien taldeen ordezkariak izatea. Ez da bakarrik gertatzen erakundeen ordezkagarritasun eskasa gizarte zibilaren interesen multzoarekiko; baita ordezkatu nahi dituzten taldeekiko ere. Ohikoa da adieraztea hautaketan dagoen manipulazio-arriskua, edo alderantziz, zenbait eragile onura bereziak ateratzen dituztela, baina ez orokorrak. Ekimen horiek, oso adierazgarriak ez diren partaidetza-prozesuak sortzeko arriskua dute, eta kontuak ematen dituzten eragileak ahultzeko, haien artean dagoen harremana eta interes-taldeen barruan duten legitimotasuna artifizialki aldatuz.

Azkenik, esan genezake kontuak emateko ekimen jarraituek bakarrik (sozialak edo erakundeetakoak) alda ditzaketela deliberazio-baldintzak (nahiz eta eragileengan eta politiko publikoetan eragin aldakorrak izan).

Deliberazio-baldintzetan gertatzen diren aldaketak, ekimen iraunkorregatik bakarrik gerta daitezke. Ekimen horien jatorria gizarte zibileko eragileak edo erakundeak izan daitezke, baina edonola ere, kontu-ematearen egiturazko baldintzak bakarrik hobetu ahalko dituzte, ibilbide luzeko ikuspegi batetik planteatzen badira.

Esaterako, 8oko hamarkadako % 0,7aren aldeko kanpainaren gizarte-mobilizazioek, GKEek eta erlijio-taldeek zuzendutakoek, Euskadin lankidetzapolitika publiko bat garatzea lortu zuten, eta garatuz eta erakundetuz joan da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez, GKEekin etengabeko elkarrekintza izanez. Horrela, politika horien eragile nagusi bihurtu dira. Zalantzak egon daitezke mota horretako elkarrizketek kontuak ematen dituzten eragileengan duten eraginaren inguruan -dagoeneko deitutakoen ordezkagarritasunaren gainean dauden zalantzak aipatu ditugu, edo eragile batzuek bere jarduera elkarrearen beraren interesengatik eta ez orokorregatik zuzen dezaketen modua-, edo deliberazioak guztien onerako diren ala ez, politika publikoetan benetako eragina duten, baina Euskadiko lankidetzaren kasuan, eragileen lankidetzaren onartu da, bai sozialena (GKE, akademia eta abar), bai publikoena (beste erakunde batzuk, Euskadin nahiz munduan), politika jakin bat egiteko paradigma gisa. Gizarte-erakundeetan bertan egin ziren elkarrizketen esperientziak kontuan hartuz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak garapenerako euskal lankidetzaren proposatzeko, irizpena emateko eta jarraitzeko gaitasuna duten lankidetzaren eragileen ordezkari-organoa gisa jarduten du. Ekimen sozialeko kontu-ematearen esperientzia da, etengabe, gerago erakundeek beren gain hartzen dutena, politika publiko hobeak egiteko deliberazio-baldintza egokiak sortzeko modu bat gisa.

Etengabeko elkarrekintzaren beste adibide bat, erakundearen ekimen honetan, gobernu irekiko atariak dira, hainbat administrazioetan ugaritu direnak. Euskadi aitzindaria da komunikazioaren teknologien erabilera, gobernu irekiaren kasuan. Eusko Jaurlaritzaren *open data* ataria eta Irekia partaidetzarako ataria -apustu horren baliabide nagusia- 2010. urtean sortu ziren, testuinguru anglosaxoitik kanpo mota horretako esperientziarik oraindik ez zegoenean. Horregatik guztiagatik, Euskadi, jarraitzeko eredutzat hartzen da normalean, partaidetzarako eta gardentasunerako teknologiak txertatzean.

Irekiak partaidetzaren maila oso mugatuak ditu. Gobernuak deliberazio publikoaren mende jartzen dituen ekimenek erabiltzaileen iruzkin kopuru mugatua

jasotzen dute, eta herritarren parte-hartzeak normalean berariazko interes eta beharregatikoko kontsultak izan ohi dira. Ataria ez dirudi eragin argirik izan duenik herritar parte-hartzaileen eraketan eta politika publikoen diseinuan. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren barne-funtzionamenduaren modua aldatu da, gardentasun eta kontuak emateko eremuak sortuz. Horiek, sailek informazioa kontrolatzeko eta politikak egiteko gaitasuna mugatu dute, gizarte antolatua interes-taldean edo taldeen atzetik. Irekia bera lege- eta gobernu-ekimenen eragilea izan da, gobernu irekiaren arloan aurrerapen handiak direnak.

Beraz, denboran partaidetza eta gardentasun metodoak finkatzen dituzten politika publikoak eta gizarte estrategiak beharrezkoak dira, ekimen edo kanpaina puntualak gain, politika publikoei buruzko deliberazioa egiten den baldintzak alda ditzaketen bakarrak direlako, han parte hartzen duten eragileen arteko elkarrekintzarako eremu berriak sortuz. Era berean, deliberatzeko baldintzen aldaketa elementurik garrantzitsuena da, epe luzera bada ere, kontuak ematen dituzten eragileak finkatzeko eta politika publiko eraginkorragoak eta bidezkoagoak egiteko.

5. ONDORIOAK: ZER EGIN DEZAKEGU GIZARTE ZIBILETIK KONTUAK EMATEKO PROZESUAK HOBETZEKO?

Kontu-emate sozialen ekimenak agintari publikoen eta gizarte zibilaren arteko elkarrekintza kanalak indartzen saiatzen dira, hauteskunde-mekanismo tradizionalak gaindituz. Gure analisiari esker, mota honetako estrategia finka dezakegu, hori erabiltzearen aukerak eta konplexutasunak erakutsiz. Ondorio gisa, estrategia horiek sustatu eta diseinatzerako orduan gure ustez kontuan hartu behar diren zenbait puntu azpimarratuko ditugu.

1. Kontu-emate soziala agintari publikoen eta gizarte zibilaren arteko epe luzeko elkarrekintza-prozesutzat hartu behar dugu. Epe laburreko ikuspegiak eta banakako gardentasun edo partaidetza tresnen gaineko arretak kontu-emate sozialaren kontzeptualizazio zorrotza eskatzen dute, aplikatzeko errezeten berregite mekanizistan oinarrituz. Askotan, ikuspegi horiek frustrazioak besterik ez dituzte eragiten, agintarien eta herritarren arteko elkarrekintzan sortzen diren onurak mugatuak direlako, eta askotan, gutxi hautematen dira. Horregatik guztiagatik kontu-emate

soziala epe luzeko iterazio-prozesu baten barruan ulertu behar dugu, neurri berritzaileak eta etengabeko doiketak behar dituena.

2. Ez dago kanal pribilegiaturik kontu-emate sozialeko harremanen hobekuntza bermatzeko. Guztiz kontrakoa: kontu-emate sozialeko estrategiarik oparoenak, hainbat partaidetza, gardentasun eta lankidetzatresna mugiarazten dituztenak dira. Oro har, tresna horiek hiru motatako berrikuntza konbinatzen dituztela esan dezakegu. Batetik, arautegiko berrikuntzak daude, administrazio-prozedura berriak ezartzen dituztenak. Hor, gardentasun mekanismoek eta kontrol publikoek eginkizun garrantzitsua dute. Bestetik, badaude agintari publikoen edo gizarte zibilaren ekimenez garatzen diren berrikuntza informaleak, kontu-emate soziala sustatzeko elkarrekintza eremu eta dinamikak sortzen dituztenak. Azkenik, berrikuntza teknologikoak kontu-emate sozialeko prozesuak berregin eta aldatzeko aukera-iturriak ere badira. Hala ere, kontu-emate sozialeko prozesuan lagun dezaketene beste zenbait berrikuntza daude. Adibide gisa, hezkuntza eta prestakuntza ikuspegitik kontuak emateko eta parte hartzeko kultura bat elikatze dauden aukerak kontuan hartu behar ditugu.
3. Edonola ere, kontu-emate sozialeko dinamikak finkatzeko faktore nagusia da parte hartzen duten eragile desberdinek duten hautemate eta borondate politikoa. Erreformat egin behar direnez, eta epe luzean bakarrik eragina duten berrikuntzak erabili behar direnez, adostasun eta laguntza politiko etengabea behar dugu denboran garatu ahal izateko. Ildo horretan, kontu-emate sozialeko dinamiketarako zaila izango da aurrera egitea, beste testuinguru batzuetan aplikatutako neurriak errealitate berri batean ezarri nahi badituzte. Dinamika horiek borondate politiko endogeno batek sortu eta elikatu behar ditu, konfiantza sor dadin. Tokiko esku-hartze politikoaren mailek badirudi laborategienak egin behar dutela, kontu-emate sozialaren esperientziak susta ditzaten.
4. Kontu-emate sozialarekin lotutako onurak, ez dira bakarrik gertatzen legitimitate demokratikoaren arloan; hobekuntza bat ere eskatzen dute erabakitzeko prozesuen eraginkortasunean eta egiten diren politikean. Kontu-emate sozialaren barruan gertatzen diren hobekuntzek gatazka-egoera esplizitu edo latenteak hobeto kudeatzen lagun dezakete. Bestalde, informaziorako sarbidearekin lotutako transakzio kostuak eta beharrezkoak diren solaskideen kostuak murriz daitezke epe ertainera. Halaber, kontu-

emate sozialeko dinamikei esker, esku hartu nahi den politikak eta arazo publikoak zeharka ezagut daitezke. Ildo horretan, sektoreen eta ekintza-esparruen koordinazioa errazagoa da eragile desberdinen arteko trukea handiagoa den testuinguru batean.

5. Azkenik, kontu-emate sozialak funtsean gobernuko eta oro har gizarte zibileko eragileen eginkizunaren kultura-aldaketa ekartzen du. Elkarrekiko mesfidantza jarrerak eta jarduerak gainditzea da erronkarik garrantzitsuen ikuspegi horretatik, gaur egungo ordezkariak krisia eragin dutelako. Deliberazioaren kultura berria sustatzea da, gure ustez, modurik onena prozesuan dauden aukera eta zailtasunei aurre egiteko, aurreko jarduerak ordezkatu ahal izateko. Etika publikoan oinarritutako deliberazioaren kultura berri hori finkatuz gero, kontu-emateko sozialeko ekimenak itxuratuko dira.

BIBLIOGRAFIA

- Bovens, M. (2007). Analysing and assessing accountability: a conceptual framework. *European Law Journal*, 13(4), 447-468.
- Bovens, M., Goodin, R., & Schillemans, T. (2014). Public accountability. In M. Bovens, T. Schillemans & R. Goodin (Eds.), *The Oxford handbook of public accountability*. Oxford: Oxford University Press.
- Eurobarómetro. (2016). Eurobarómetro 2016 Retrieved 10 November 2016, from <http://www.gesis.org/eurobarometer-data-service/home/>
- Fox, J. (2015). Social accountability: what does the evidence really say? *World Development*, 72, 346-361. doi: <http://dx.doi.org/10.1016/j.worlddev.2015.03.011>
- O'Donnell, G. A. (1998). Horizontal accountability in new democracies. *Journal of Democracy*, 9(3), 112-126.
- Peruzzotti, E., & Smulovitz, C. (2006). Social accountability. In E. Peruzzotti & C. Smulovitz (Eds.), *Enforcing the rule of law: Social accountability in the new Latin American democracies* (pp. 3-33). Pittsburgh: University of Pittsburgh Press.

- Rosanvallon, P. (2012). *La sociedad de los iguales*. Barcelona: RBA.
- Rothstein, B., & Uslaner, E. M. (2005). All for all: equality, corruption, and social trust. *World Politics*, 58(1), 41-72.
- Smulovitz, C., & Peruzzotti, E. (2000). Societal accountability in Latin America. *Journal of Democracy*, 11(4), 147-158.
- The Economist Intelligence Unit. (2016). *Democracy Index 2015: democracy in an age of anxiety*. London: The Economist.
- The Freedom House. (2016). *Freedom in the World 2016*. Washington: The Freedom House.
- Young, I. M. (1989). Polity and group difference: A critique of the ideal of universal citizenship. *Ethics*, 99(2), 250-274. doi: 10.1086/293065
- Young, I. M. (2000). *Inclusion and democracy*. Oxford: Oxford University Press.
- Young, I. M. (2001). Activist challenges to deliberative democracy. *Political theory*, 29(5), 670-690.
- Young, I. M. (2011). *Responsabilidad por la justicia*. Madrid: Morata.
- Young, I. M. (2013). *Responsibility for justice*. New York: Oxford University Press.

Bilbao Padre Lojendio, 2 - 2º • 48008 Bilbao ☎ 944 151 135

Pamplona Avenida Barañain, 2 • 31011 Pamplona ☎ 948 231 302

San Sebastián Andía, 3 • 20004 San Sebastián ☎ 943 275 173

Vitoria-Gasteiz Monseñor Estenaga, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz ☎ 945 202 676

alboan@alboan.org - www.alboan.org  <https://www.facebook.com/alboan>  [@ALBOANongd](#)